



Gure

eskola.com

LA SALLE-LEGAZPI
Ikastetxea


Ekaina 2018
77. Alea

Q
Euskadi
2006

Loiolako Iñigoren kalea, 7 · 20700 ZUMARRAGA Gipuzkoa · Telf. 943 72 15 14 · Fax 943 72 56 73
www.lasallezumarraga.eus · aldizkaria@lasallezumarraga.eus



La Salle Legazpi:
guztion batura

	Editoriala Bokazio kultura	2-3
	La Salle Legazpi Calendar	4-17
	Berriak	18-19
	Elkarrizketa José Manuel Villar	20-23
	Gure Txokoa Misioa	24-25
	Erreportaia Anai Robert Schieleren bisita Arlep Barrutiari	26-31
	Irakasleen txokoa	32-35
	Ikasleen txokoa	36-49
	Familien txokoa	50-57
	Ikastetxea lehen eta orain	58-59
	Zorionak	60-67
	UGLE	68-69
	Kontrazala	70

 La Salle Legazpi
  @LaSalleLegazpi
  LaSalle Legazpi Zumarraga-Urretxu

Bokazio kultura

Aitor Macho

Ikasturte bukaera honetan eskolako langile guztiok La Salle eskola guztietan garrantzi handia ari zaion ematen gai bati hurbiltzeko parada izan dugu: Bokazio Kultura.

Prestatutako saioan, “bokazio” hitzak dauzkan (edo ematen zaion, hobeto esanda) esanahi atzerakoiaz jabetzen ginen, baina ondo ulertuta, oso hitz aberatsa dela jakin genuen, bai alderdi laiko, baita ikuspegi erlijiosotik ere.

Eta “bokazio” hitzari “kultura” gehitzen badiogu, bikotearen aberastasunaz jabetuko gara. Are gehiago, egingo dugun bezala, gaian aditua den Amedeo Cencini italiarraren hausnarketetara jotzen badugu. Horietako batzuei helduko diegu paragrafo hauek prestatzeko.

Lehen aipatzen genuen bezala, ez gara zentratu behar bokazio hitzaren esanahi zaharretan (erlijioso, moja edo apaiz izatearen nahia). Sinistun garenok badakigu bere helduera askoz aberatsagoa dela: zein den gure bizitzaren helburua, nire bizitzarekin zer egitera nagoen deituta (Berak deituta, Jainkoak deituta). Ikuspegi horretatik, bizitzaren helburua ez da “zer izan nahi dudan” huts bat, baizik eta “zer izan behar dudan” eta ardura horri egoki erantzutea, nire aukeraketa horretan besteen onura ere jokuan dagoelako.

Cencinirekin egoteko aukera izan genuen lasalletar ugari 2017ko otsailean El Escorialen

egon zen topaketa batean. Eta berak esaten zigun bokazio kultura itxaropenez betetako estiloa izan behar duela, konbentzituta eta itxaropentsu bizitzeko era bat izan behar duela.

Kultura bezala, pertsonaren jarraipena duen pertsonaren jarrera, bere sinismen sakonetan sustraitzen dena, bere izakeran azaltzen dena. Eta Cencinik aipatzen zituen hiru zutabeak gureak egingo ditugu: mentalitatea, sentsibiltatea eta pedagogia.

1.- Mentalitateak bokazio hitzaren esanahiari heltzen dio. Sinistun izan ala ez, denok izan gara bizitzara deituak, orduan hortik aurreragoko esanahia deskubritu behar dugu. Ikuspegi laikotik, zer izan nahi dudan, nire bizitzarekin zer egin nahi dudan; ikuspegi erlijiosotik, askoz polita eta sakonagoa: zein den nire bizitzarekiko Jainkoaren ametsa.

2.- Sentsibiltatea: alderdi honek barne munduarekin zerikusia du, sentimenduekin, afektuekin, nahi eta gustuekin, pasio eta maintemintzeekin. Eta hau da benetako lekua gauzak ikasteko. Atal honetara ez bagara ailegatzen, nire kanpoko jarrera oso zuzena izan daiteke, baina ez da barruan ondo sustraituta egongo. Beraz, bokazioak suposatzen du pertsonak bere benetako egia, bere benetako edertasuna, bere ontasuna deskubritu behar dituela.

Izan ere, bokazioak sentsibiltatearekin zerikusia duen gizaki osoa nahasten du. Gizakiak, benetakotasunez bilatzen badu, goizero deskubrituko du adimenez, bihotzez eta borondatez zein den bere betebeharra. Barre-barre netik sortzen da bokazioa, hain zuzen, Jaungoikoak okupatzen duen gunetik.



3.- Pedagogia: sentsibiltatetik jaiotzen da bizitzaren aurrean nola jokatzaren era. Jainkoak Berak erakusten digu nola. Eta, horrela egiten badugu, saiatuko gara besteek ere beraien bokazioa deskubritzen, bizitza planteatzaren era berezi baten ondorioz. Hezitzaile bezala ez daukagu eginbehar makala...

Sentsibiltatea (emozionalki, intelektualki eta nahiaz erakartzen gaituen zerbaitetarako orientazioa) hezi behar

da. Sentsibiltate desberdinak daude (sinestuna, harremanetakoa, estetikoa, etikoa). Eta egiten ditugun aukeraketekin eratzen da. Gure gazteak gure sentsibiltateak ari dira jasotzen, baina beraiei dagokie beraiena eraikitzea, norbera da beraren sentsibiltatearen arduradun. Eta, horretan, beti hezteko prozesuan egongo dela deskubritzen dugu.

Izan ere, ardura sortzen du sentsibiltateak. Dohai handia jaso duela konturatzen den pertsona, besteen erantzule egiten da. Bizitza jaso dugu, dohai bezala eta, era berean, besteenganako dohai bihurtzera deituta gaude: jasotako dohaia emandako dohai bihurtu.

Hau izango da hurrengo urteetan La Salle eskola guztietan ildo garrantzitsu agertuko dena, gure eskoletako pastoraltza nabarmendu beharko duena: bokazioa da nire bizitzaren egia, nire bizitza ona eta ederra egiten duten deia eta aukera. Gure eskolan ez dugu heroirik behar, baizik eta pertsona arruntak, beraien bizitzaz jasotako dohai eta oparitutako dohai egiten dutenak.



8 Haur Eskolako umeen jakinminak ez dauka mugarik. Oraingo hone-tan ukimena landu zuten ogi birrinduz beteriko ontziekin espe-rimentatuz.



9 LH1. eta 2. mailako haurrak Donostiako Aquariumean izan ziren Aste Santuko oporrak hartu aurretik. Izan ere, ikasgelan *"Baleak arrainak al dira?"* proiektua landu zuten eta irteera lanaren osagarri gisa egin zuten. Akuario ikusgarriaz gozatzeaz gain, Gipuzkoako itsas historia ezagutzeko aukera paregabea eduki zuten.



15 Kolore beroak, hotzak, oinarritzkoak,... Haur Eskolako umeek barruan daramaten artista azaleratu zuten tenperak eta beraien eskuak erabiliz.



16 Orientazio Programarekin jarraituz, DBH4 eta Dibertsifikazio Kurrikularreko 4. mailako ikasleak Andoaingo La Salle ikastetxean izan ziren. Bertan, behin Bigarren Hezikuntzako ikasketak bukatu dituztela, hurrengo ikasturterako eskuragarri izango duten ikasketa eskeintzari buruzko informazioa jaso zuten.



17 Oraingoan ere gure ikasleak guztiz lanpetuta aritu ziren Izartxo Taldeak martxoan antolatutako topaketan. Emaiza: norberari egokitutako goma-evazko giltzatako praktikoak!



16 DBH 3. mailako ikasleek Zumarraga eta Urretxuko udalek sustaturiko ZUTXU programan parte hartu zuten Solasgune enpresak dinamizaturiko bi saiotan. Programa honen helburua Zumarraga eta Urretxuko gazteen laguntzaz aktibo pertsonalen eta komunitarioen mapeoa egitea da. Horretarako, lehenengo saioan gure ikasleek lagungarriak diren jardueri eta osasuna sustatzen duten ekintzei buruz hausnartzen jardun zuten eta jarraian hausnarketa honetan oinarritutako proposamen batzuk aurkeztu zituzten.



19
23 DBH4 eta Dibertsifikazio Kurrikularreko 4. mailako ikasleak ikasbidaian izan ziren Andorra eta Bartzelona aldean. Ziur bizipen, emozio eta esperientziez betetako egun ahaztezinak izan zirela.



19
23 Urtero gure ikastetxera ikasle berriak etortzen dira euren bizitzako sasoi berri bati ekiteko ilusioarekin. Batzuk urrutitik, maleta egin, jaioterria utzi eta ezezaguna bezain arrotza den toki batera bizitzera joateak sortzen duen mina begietan dutelarik. Beste batzuk hurbilagotik iristen dira hamaika arrazoi tarteko. Bakoitzak bere istorioa du. Harrera ona egiteak eta konfidantzazko giroa sortzeak hasierako beldurrak uxatzeko eta esperientzia berri bati hasiera ona emateko balio die. Horretaz ohartuta, LH 3. mailako ikasleek praktika onen dekalogo bat sortu zuten *"Gustora nonahi"* proiektuaren bitartez. Helburua: La Sallera datozen ikasle berriak ondo sentiaraztea.



19
23 *"Aitaxo haurdun dago!"* izan zen LH 2. mailako ikasleek Aste Santuko oporrak hartu aurretik landu zuten proiektua. Proiektuan ikasleak partaide aktibo izan ziren: haurdun dagoenaren paperean jartzeaz gain, bikote nahiz familiako partaideen rolean murgildu ziren. Proiektuaren helburua haurrek euren kabuz ume bat amaren tripan astez aste nola garatzen doan ikustea izan zen. Fetuaren fase ezberdinak aztertu zituzten eta denek gezurretazko tripa jarri zuten zer sentitu daitekeen imajinatzeko. Haurdun dagoen eskolako irakasle batekin solasean aritzeko aukera ere izan zuten. Bestalde, proiektua ez zen haurdunaldira soilik mugatu; izan ere, gaiak aukera eman zien harantzago joan eta gaur egun dauden familia eredu ezberdinak aztertzeko.



19
23 Julio Vernerren *"Munduari bira 80 egunetan"* eleberria inspirazio iturri, LH 1. mailako ikasleek munduari bira eman zioten Ikankuntzarako Testuinguru Berrian (ITB) oinarrituriko proiektu baten bitartez.

Herrialde desberdinetara egin zuten jauzi, kontinente desberdinak ukituz. Abenturak iraun zuen bitartean, monumentuak, banderak, jakiak, jantzi tradizionalak, hizkuntzak, monetak eta ohiturak ezagutu zituzten. Ikasleek ikerketa lana egin behar izan zuten informazioa eskuratzeko eta herrialde desberdinetako oroigarriak eka-ri zituzten ikasgelara. Gainera, egun bakoitzean ikasgela bisitatu behar zuten herrialdearen arabera girotzen zuten, proiektuari errealismoa eman eta umeak motibatzen. Egutero bidaiari ekin aurretik pasaportea sinatzen zuten eta herrialde jakin baten inguruko pasartea irakurri. Azkenik, eskulanak egin zituzten leku desberdin horiek oroitzeko.



19
23 *"Olatu erraldoi batek Naoki jaioberrira Taroren txalupara eraman zuen. Zazpi urte igaro ostean, Naokik oso txikia izaten jarraitzen du. Ozeanora bueltatu beharko du hazteko? Zilar koloreko arrain zoragarri batek emango dio erantzuna..."*. Hokusai artistaren *"Olatu handia"* koa-droan inspiratutako ipuina abiapuntutzat hartuta, LH 4. mailako ikasleak Japoniako artean eta kulturen murgildu ziren *"Koinobori"* proiektuaren bitartez maiatzaren 5ean, Umeen Egunean, Japonian altxa-tzen dituzten karpa formako banderei erreferentzia egiten dioen izenburupean.



22 Haur Eskolako umeek beste esperimentu dibertigarri baten bidez ukimena lantzen jarraitu zuten. Oraingo honetan, gainazal desberdinen gainetik oinez ibili ziren sentsazio desberdinak esperimentatzeko asmoz: kilimak, laztasuna, leuntasuna,...



Gure ikastetxean ohitura den bezala, LHko 4. eta 5. mailako ikasleek Zuhaitz Egunean parte hartu zuten Zumarragako hilerri ondoko zelaian zuhaitz ezberdinak landatuz. Zuhaitz Egunaren helburua belaunaldi berriak printzipio integraletan hezte da, basoen garrantzia aintzat har dezaten. Haurrek, gainera, landatutako zuhaitzean euren izena jartzeko aukera izan zuten, bakoitzak etorkizunean zuhaitzaren jarraipena ahal egiteko. Behin zuhaitzak landatuta, parte hartzaileek Zumarragako Udalak eskeinitako mokadutxo bat jateko aukera izan zuten.



9 Apirilak 9 eta 10ean Ordiziako Rugby Elkarteko bi jokalaria egon ziren DBHko ikasleekin Hezkuntza Fisikoko klaseetan. Entrenamendu honen bitartez ikasleen artean rugby-ra jolasteko zaletasuna sustatu nahi izan zuten eta, ikasleren batek nahi izanez gero, rugby taldean izena eman dezake.



11 LH6. mailako ikasleek Arotz Enean egun ahaztezin batzuk igaro zituzten. Esperientzia honen bitartez naturan murgiltzeaz gain beraien arteko harremanetan sakondu zuten.



13 DBH 4. mailako ikasleek alkoholak dakartzan arriskuei buruzko ikastaro batean parte hartu zuten. Ikastaro honek hainbat helburu landu zituen: alkohola hartzearekin lotuta dauden arrisku eta kalteak ezagutzea, jarrera arduratsu bat hartu ahal izateko informazio nahikoa izatea eta pertsona batek kontsumitzea erabakitzen badu, bere burua zaintzen ikastea.



12 LH 5. mailako ikasle eta irakasleek Donostiako Cristina Enea parkea ezagutzeko parada izan zuten, non naturaren aldeko tailerrez gozatzeko aprobetxatu zuten. Egund pasazoragariaren ostean, bidaia trenez egiteko aukera izan zuten. Errepikatzeo esperientzia berria eta ezin hobea.



13 DBH 3. mailako ikasleak martxoan hasitako ZUTXU programaren 2 saioan lanean aritu ziren.



17 DBH4. mailako eta Dibertsifikazio Kurrikularreko 4. mailako ikasleek UGLE bisitatu zuten.



17 Urtero bezala, gure eskolako eko-ordezkariek Urretxuko Kultur-etxera joan ziren Eskolako Agenda 21 proiektuan landutako gaia ezagutzera emateko. Aurtengo gaia LURZORUA izan da eta Gaiatzuriko, Ikastolako, Iparragirre Institutuko eta La Salle Legazpi ikastetxetako ikasleok egindako lana aztertu ondoren, aurrerantzean gaiaren inguruan hartutako konpromisoak eta udalari luzatutako proposamenak adostu zituzten.



19 Haur Eskolako haurrek zelofan papera ispilu gisa erabili daitekeela ikasi zuten.



20 DBH 3. mailako ikasleek AESLEME elkarteak (Asociación para el Estudio de la Lesión Medular Espinal) eskeinitako hitzaldian parte hartu zuten. Hitzaldia erizain batek eta bizkarrezur-muineko lesioa duen pertsona batek gidatu zuten eta hainbat puntu landu zituzten, hala nola bizkarrezur-muin eta burmuinari buruzko kontzeptu medikoak eta lehen-, bigarren- eta hirugarren-mailako prebentzioa (lesio mota hauek nola sahiestu, istripu bat gertatzen denean zer egin eta lesioa duen pertsonaren erreabilitazioa eta integrazio fisiko, psikologiko eta soziala).



16 Gure errepideetan zehar dabilzan ibilgailuak eta trafiko seinaleak gure egunerokotasuna osatzen duten elementuak dira. Hala ere, bi aspektu hauek ez dira soilik helduen egunerokotasunean sartzen; txikieneen eguneroko bizitzan ere eragina daukate. Hori dela eta, HHko ikasleak bideko segurtasun heziketan murgildu ziren "Gurpilen gainea" izeneko ITB proiektuaren bitartez. Oinarrizko seinaleak ikasi zituzten, beraien ibilgailuak patioan gidatu zituzten seinaleak eta oinezkoak errespetatuz, gida baimen propioa lortu zuten eta Udaltzaingo baten bisita izan zuten.



20 Etzeko txikieneen eskola, beraien etxea eta jolasten duten parkea oso ondo ezagutzen dituzte. Hala ere, zer dago leku ezagun hauetatik harantzago? Hori ezagutzeko, andereñoekin eskolatik irten eta gure herria ezagutzera joan ziren. Eguraldi bikaina lagun, kaleetatik ibili ziren eta agian hain ezagunak ez zaizkien lekuei buruz asko ikasi zuten.



21 DBH 4. mailako hainbat ikasle Tolosako Lanbide Heziketako Azokan izan ziren Lanbide Heziketako eskeintza desberdinak ezagutzeko asmoz.



23 Lehen Hezkuntzako ikasleek liburuari omenaldi ederra egin zioten UNESCOk sustatuta 1995etik ospatzen den Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira. Irakurketaren plazerra deskubrituz ospatu zuten eguna. Liburuak trukatu eta Udal Liburutegia ere bisitatu zuten bertako zerbitzuak ezagutzeko. Horretaz gain, LH 5. eta 6. mailako ikasleek Toti Martínez de Lezearen Nur liburuetaiko bat 3 ordutako irakurketa-maratoian osorik irakurtzea lortu zuten. Totik berak eskertu zien gure ikasle eta irakasleei egindako ekimena **(klikatu bideoa ikusteko)**. Izan ere, denok izan beharko genuke mesanotxean liburu bat: ezagutza iturr iizateaz gain, liburuak bizitza errealetik ihes egiten laguntzen digute istorio eta abentura zoragarrien bitartez.




23 Frantsesa ikasten ari diren DBH3ko ikasleak Baigorri izan ziren La Salle Legazpik kudeatzen duen elkartruke programaren eskutik. Elkartruke programaren helburua bikoitza da. Alde batetik, gure ikasleak frantses kulturaren eta hizkuntzan murgiltzen dira Baigorriko hainbat ikasle eta familiekin egun batzuk igaroz. Bestetik, behin Zumarraga eta Urretxura bueltatuta, elkartrukea egin duten frantses ikasleei gure kultura, hizkuntza eta familia bizitza erakusten dizkiete. Benetan esperientzia hezitzaile eta aberasgarria!




26 Haur Eskolako gelak berriro esperimentazio gune bilakatu ziren. Oraingo honetan, haurrak saskiko altxorrekin jolasean aritu ziren.



26 Apirilak 26 eta maiatzak 2 bitartean DBHko ikasleak ITBn barnean sartzen diren Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI) proiektuak gauzatzen aritu ziren. DBH 1. mailako ikasleak mugikorrek eskutan zituztela Gizakemonak harrapatzen aritu ziren. Hala ere, jolasarekin hasi baino lehen jolasa bera sortzen jardun zuten hainbat egun. Horretarako, tutorialak bilatu, ikertu, mapak sortu, QR kodeak egin eta kokatu ... eta beste hainbat lan egin behar izan zituzten. Emaita ikusita, argi eta garbi dago proiektua arrakastatsua izan zela!



26 Zer erabilpen eman diezaiekegu gure ibaiari? Galdera horri erantzun behar izan zioten DBH 2. eta 3. mailako neska-mutiek, Urola ibaiaren inguruko azterketa egin ostean Udalarri eskaera formal bat aurkezteko asmoz. Horretarako, lehenik eta behin ibaiaren lehen egiten zen erabilerrari eta gaur egungoari buruzko hausnarketa bat egin zuten gurasoei eta aitona-amonei galdeketa bat eginez. Ondoren, Ingurumen Sailak ibai-ekosistemak zabaltzeko abian duen Ibaialde programa oinarritzat hartuta Urola ibaiaren aztertu zuten. Nola? Uraren kalitatea zehazteko material ezberdinez osatutako kitak erabiliz ibaitik eta hainbat iturritatik jasotako ura aztertuz. Ea gure ikasleek Udalaren erantzunik jasotzen duten!



26 Orientazio programarekin jarraituz, DBH 4. mailako ikasleek aukera paregabea eduki zuten POIn oinarritutako proiektuan lanean ari zirela datorren ikasturtean jarraituko duten ibilbidea guztiz definitzeko. Ikasketa eta ibilbide egokia bere gustuen, dedikazioaren eta lanean errotuta egon behar dela ulertarazi nahi izan zieten irakasleek eta, hori dela eta, proiektua Nobel saria irabazi duten pertsonailetan oinarritu zen. Talde kooperatiboetan eta datorren ikasturtetik aurrera egingo dituzten ikasketen arabera antolatuta, ikasleek Nobel sariarentzat hautagaitza bat aurkeztu behar izan zuten dauden sei kategorian desberdinentzat: Matematika, Medikuntza, Literatura, Bakea, Ekonomia eta Fisika eta Kimika. Azkenengo egunean hautagai guztien artean irabazlea aukeratu zuten eskolako aretoan ospatu zuten gala batean eta irabazleak, saria jasotzeaz gain, esker oneko hitzaldi hunkigarri bat eman zuten. Edizio honetan irabazlea Literaturako kategoriarako hautagaia izan zen. Nork irabaziko du datorren urtean?



27 Urteroko hitzorduari leial eutsiz, Arco-Iris Antzerki Taldeak "¿Y quién nos manda hacer teatro?" estreinatu zuen. Hasiberria den aktore talde batek justu eszenatokiara aterata aurretik dituen bizipenak kontatzen ditu antzezlanak. Michael Farynen "Por delante y por detrás" obran oinarrituta dago eta aurrez Juan José Martín Ucedak zuzendutako lana da, Almeriako Roquetas del Mar antzerki eskolaren eskutik. Arco-Iris taldeak funtzio bikoitza eskeini zuen Zelai Arizti aretoan eta, aurreko urteetan bezala, irabaziak Poyde eta beste hainbat GKEtara bideratuko dira.



28 Izartxo Taldeak gure ikasleak esploratzaile senti zintezten nahi izan zuen. Horretarako, *Euskadi Express* izeneko ginkana antolatu zuten. Bertan, telebistako lehiaketan arituko balira bezala, partehartzaileek taldeka frogak ugari gauditu behar izan zituzten helmugara heldu baino lehen. Hau bai dela larunbat arratsaldea ondo pasatzeko plana!



4 Gorria eta Urdiraren festen ondoren, 2 urteko gelako umeek Horiaren Festa ospatu zuten.



8 Zoritarrez gaur egun minbizia ezaguna dugun gaixotasuna da. Hala ere, ez gara beti jabetzen gure osasuna zaintzeak eta ohitura osasungarriak edukitzeak duen garrantziaz eta maite dugun norbait gaixotasun hau jasaten ari denean sentitzen duguna ez dakigu nola adierazi. Hori dela eta La Salle Legazpi Maider Sierra psikologoa gonbidatu zuen. Dinamika partehartzaile baten bidez, Maiderrek gure ikasleak beraien beldur eta kezkei buruz aritzeko animatu zituen eta beraien emozioak egoera hauen aurrean era egokian kudeatzen lagundu zien.



10 Hainbat saiotan dastamena eta ukimena trebatzen aritu ondoren, usaimenarekin jolasteko txanda heldu zen Haur Eskolara.




12 DBH2ko ikasle den Yeray Dávila Donostian izan ziren Euskadiko XVI. Olinpiada Matematikoan La Salle Legazpiko ordezkari gisa. Zorionak egindako lan bikainagatik!



12 Zein da gutako askok astebukaeretan antolatzen dugun plana? Lasai eseri, erlaxatu eta filma bat ikusi palomitak jaten ari garen bitartean. Hori da gure ikasleek egin zutena Izartxo Taldearen laguntzaz: ikusgai zeuden bi filmetatik bat aukeratu zuten (*Wall-E* edo *Inside Out*), begiraleek egindako palomita goxoak hartu eta arratsalde lasaia pasa zuten elkarrekin filma ikusten ari ziren bitartean.



17 Zertarako erabili dezakegu goilara bat? Jateko beharrezkoa den tresna izateaz gain, Haur Eskolako haurrek beraien oreka trebatzeko baliagarria izan daitekeela ikusi zuten.



23 LH 5. eta 6. mailako ikasle eta irakasleek Marie de Jongh konpainiaren *Amour* antzezlanaz gozatzeko aukera izan zuten Donostiako Victoria Eugenia Antzokian. *Amour* jolas sinbolikoan oinarritutako keinu bidezko ikuskizuna da, hizkuntzaren muga gainditu eta hunkitzea lortzen duena. Horretaz gain, bi ikuskizun desberdin izan zitezkeen, haur baten edo heldu baten ikuspuntutik begiratzuz gero. Mundu magiko batean sartzen gaitu, eguneroko bizitzako ekintzak berreraikiz haien estereotipo eta klitxeekin, imajinazioz errealitatean ezinezkoa den hori bizi ahal izateko.



25 LHko gaztetxoek Burdinbidearen Euskal Museoan izan ziren. Bertan antzinako trenak ikusteaz gain historian barrena bidaiatzeko aukera paregabea izan zuten.



22 Artea, logika, zientzia eta sormena uztartuta,
27 La Salle Legazpiko ikasleek urtean zehar
egindako eskulan eta proiektuak ikusgai jarri
zituzten Zelai Ariztikiko erakusketa aretoan
maiatzak 22-27 bitartean.

Ikasleek agerian utzi zuten material birziklagarriekin eta bestelakoekin zer nolako altxorak egin

ditzaketen eskuz. Ikusteko koloretsua eta erakargarria izateaz gain, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzaren bidez landutako proiektu bakoitzaren atzean arteari, naturari edo zientziei loturiko gai bat dago sakontasunez landuta, irudimena, matematika, hizkuntza, marrazketa eta bestelako gaitasunak erabiliz. Hona hemen gure ikasleak zer egiteko gai direnaren adibide ugari.



14 Urtero lege, La Salle Legazpi La Salle Astea ospatu zuen egitarau zabal batekin. Ikasleek erruz gozatzeko moduko jarduerak antolatu ziren egun hauetarako, hala nola dantza, eskulan saioak, jolasak, txokolatada, puzgarriak, buruhandiak...

18 Bi urteko umeek "Txikitxou" jaialdiarekin ekin zioten asteari. Asteazkena eta ostirala bitartean, zaku lasterketak, eskulanak, sukaldaritza tailerra eta beste hainbat jarduera izan zituzten.

LHko ikasleentzat osteguna izan zen egun handia.

Entzierroarekin hasi eta tailer, jolas eta txokolatadarekin jarraitu zuten. Erdian, indarrak hartzeko, elkarrekin bazkaldu zuten eskolan. Eta asteari amaiera emateko, puzgarrietan duten energia guztia agortzeko aukera izan zuten.

Helduenek, berriz, DBHko neska-mutilek, ostiralean ospatu zuten gynkhana bat kaleetan zehar eta sukaldaritza lehiaketa eginez. Jarraian, futbol partiduak jokatu zituzten ikasleek euren artean eta baita gurasoak irakasleen aurka edota ikasleak irakasleen kontra ere.



1 Arte guztia da mundua ezagutzeko eta interpretatzeko modu bat, zirrikitu berrietan arakatu eta sentsazio berriak deskubritzeko. Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko neska-mutiek hori ikusteko aukera izan zuten Topic-Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentrora eginiko bisitan. Arteaz gain, txotxongilo antzerkia funtsezko hezkuntza tresna baita. Ikasleek txotxongilo ikuskizunaz eta bertako erakusketaz gozatu zuten eta baita euren kabuz txotxongilo bat sortu eta hezuramaitzen saiatu ziren. Izan ere, bisita borobiltzeko tailer batean hartu zuten parte eta txotxongilo bat fabrikatzeak dituen arazo teknikoei egin behar izan zieten aurre motrizitatea eta irudimena landuz. Mariona, Topiceko maskota maitagarriaren konpainian, milurteko arte honen teknika ezberdinak ere ezagutu zituzten gure ikasleek.



15 Ikasturte osoan lanean eta entsegutan aritu ondoren, La Salle Legazpiko abesbatzak eskolako aretoan emanaldi bat eskeini zuen egindako lana erakusteko.



15 Urtero bezala AMPA ikasturte amaierako afaria antolatu zuen. Bertara gerturatutakoek afari eta giro apartaz disfrutatu zuten.



16 Eskulanak, jokoak, lehiaketak, zinea, sukaldaritza, bingoa,... ugariak eta dibertigarriak izan dira aurtengo izartxo aisialdi taldeak antolatu dituen ekintzak. Zein izan zitekeen urte hau era ezinhobean bukatzeko ekintza? Bazkaria eta jokoak eskolako frontoian. Datorren ikasturtera arte!

ANTZERKI SOLIDARIOA
LA SALLE-LEGAZPI Ikastetxeko
DBH 1. eta 4. mailako ikasleak

Fiebre de sábado noche

Ekainak 22
Zelai Arizti aretoan
Arratsaldeko 7etan
Laguntza
5€ Helduentzat
3€ Adin txikiakentzat



22 La Salle Astearen barnean DBH1 eta 4ko ikasleek antzerki emanaldi ezin hobea eskaini zuten Zelai Arizti Aretoan. Aurtengo *Fiebre del sábado noche* filmaren egokitzapen musikala antzeztu dute. Tradizioari jarraiki, sarreraren salmentarekin lorturiko dirua PROYDE-PROEGA GKEari laguntzeko erabili zuten. Izan ere, ekintza honekin gure ikasleek La Sallerentzat hain garrantzitsuak diren baloreak praktikan jarri zituzten: bizikidetzatza, errespetua eta solidaritatea.

Ingeleseko kanpamenduek, eskolako udalekuek eta tailer teknologikoek osatzen dute udako oporretako eskaintza

Aisia eta ikaskuntza uztartzea. Helburu horrekin osatu du La Salle Legazpi udako oporretako udaleku eskaintza ingeleseko kanpamenduak, eskolako udalekuak eta dronen eta 3D inpresioaren inguruko tailer teknologikoak oinarritzat hartuz. Izan ere, proposamen ludiko-hezigarriak dira, ikasleen garapen kognitibo eta soziala garatzera bideratuak.

Lacunza

La Salle Zumarraga Ikastetxea

Aprender disfrutando.



Ingeleseko kanpamenduak ikastetxean bertan Lacunzaren eskutik

Lacunza hizkuntza akademiarekin elkarlanean, 6 eta 12 urte-bitarteko neska-mutilek aukera dute eskolan bertan ingeleseko kanpamenduetan parte hartzeko beste herri batera edo hiriburura joan beharrik gabe. Egitarauaren baitan daude jarduerak, jolas tematikoak, kirolak eta eskulanak ingelesez, asteroko irteerarekin batera.

Kanpamendua ekainaren 25tik uztailaren 20ra egingo da, 9:00etatik 13:00era. Aukera dago hilabete osoan parte hartzeko edo lehenengo edo bigarrenengo hamabostaldian.

Gainera, nahi izanez gero, zaintza zerbitzua eskaintzen da 8:30etik 9:00etara eta 13:00etik 13:30era.

Informazio gehiago jasotzeko eta izena emateko:
enara.lacunza@lacunza.es



Eskolako udalekuak

Eskolak, 3 eta 8 urte-bitarteko neska-mutilentzat ere kanpamendua eskainiko du. Jarduera ezberdinak daude planifikaturik. Udalekua ekainaren 25tik uztailaren 20ra egingo da, 9:00etatik 13:00era. Astez aste kontratatzen da eta zaintza zerbitzua eskaintza da 7:30etatik 9:00etara. Honez gain, jangela zerbitzua ere eskainiko da.

Informazio gehiago eskolako idazkaritzan eskuragarri.

Tailer teknologikoak: dronak eta 3D inpresioa

Teknologia zaletuentzat La Salle Legazpi eta Doplay dronen eta 3D inpresioaren inguruko tailerrak antolatu dituzte. 7 eta 16 urte bitartekoei zuzenduak dira. Partaideek drona diseinatu, inprimitu, muntatu, gidatu eta azkenean, etxera eramango dute.

Hiru txanda eskainiko dira: ekainaren 25tik 29ra; uztailaren 9tik 13ra; eta uztailaren 16tik 20era. Kasu honetan ere ordutegia 9:30etatik 13:30era izango da eta kostua 125 eurotakoa izango da. Anai-arrebei %10eko deskontuak egingo zaizkie.

Informazio gehiago jasotzeko eta izena emateko:

alberto@doplay.es
660 382 674

DoPlay!

La Salle Legazpi
Zumarraga - Urretxu



José Manuel Villar

La Salle Legazpiko Ikasle Ohien
Elkarteko presidentea

**“Lanean jarraituko
dugu boluntariotzaren
balioa helarazteak
harro sentiarazten
gaituelako”**

Guztioi gustatzen zaigu kultur eskaintzaz eta jaiez gozatzea baina gutxi gogoratzen gara ekimen bakoitza aurrera ateratzeko boluntarioek egiten duten ahaleginaz. Horren adibide da La Salle Legazpiko Ikasle Ohien Elkarte. Bere presidente José Manuel Villarrekin egon gara.

-Pasa dira urte batzuk 1926an banketxean lan egiten zuen ikasle ohi talde batek La Salleko Ikasle Ohien Elkarte sortzea erabaki zuenetik, ezta?

Garai hartan sekulakoa izan zen gure elkartearen sorrera. Kultur elkarteak gutxi ziren eta gureak zegoen kultur hutsunea betetzea lortu zuen. Orduan Luistarren elkarteak, Kasinoak eta Oargik osatzen zuten.

Esan ohi zen elkarteko presidentea aurki sartuko zela udaletxean zinegotzi gisa. Kasu batzuetan horrela izan zen. Egiaztagarria dena da garai hartako aurrezki kutxetako eta bailarako enpresetako zuzendariak elkarteko zuzendaritzako kide zirela.

-Elkarteak izan du Urrezko Arorik?

Noski. Elkarte guztiek bezala, izan ditu oso garai onak. Hainbat kultur jarduera sustatzen zituen elkarteak, adibidez, "Astearte kulturalak", Gabonetako idazlan eta postal lehiaketa, zine kluba, erakusleiho lehiaketa, etab.

Ikasle ohien arteko afaria urte osoan itxaroten zen ospakizuna izaten zen.



-Ze egoeratan aurkitzen da gaur egun elkarteak?

Jarduerei dagokienez ez baina ikasle ohiak dagokienez, irauten.

-Zein da elkartearen misioa gaur egun ikastetxearekiko?

Lausotua. Ikastetxean badagoen arren elkarteko ordezkartza, ez dauka misio argi bat.

-Errege kabalgata eta haur danborrada antolatzeak ere zuen lanaren aitortza ekarri du. Arduragatik, konpromisoagatik, La Sallerengatik... zerk bultzatzen edo animatzen zaituzte horretara?

Aitortza historikoa da urteetan egindako lanagatik. Aipatutakoez gain, elkartearen danborrada ere antolatzen dugu, herriko jaien aurretik.

Elkarteko kide bakoitzak ikuspegi ezberdina izango du. Nik neuk lehenengo herriarekiko konpromisoagatik egiten dut, La Sallegatik, eta nola ez, egindako lanak ematen duen poztasunagatik.

-Sekulako lana izango da hori guztia antolatzea...

Hiru ekintza dira eta horretaz gain, urte osoan arduratzen gara ekitaldi horietako ekipamendua zaintzeaz eta mantentzeaz, baita beste herriei uzteaz ere. Gehien ikusten dena beharbada festa aurreko entsegu eta prestaketa lanak dira baina esan bezala, urte osoko lana da. Lan handia da, bai, gutxi ikusten eta eskertzen dena baina pozgarria.

-Elkarte gisa, zeintzuk dira erronka nagusiak?

Nire ustez erronka nagusia egiten ari

garen horretan lanean jarraitzea da eta hori posible egiten duen jendearen ilusioari eustea.

-Elkarteetan boluntarioak eta konprometitutako jendea ez dago soberan. Zuen kasuan, giza kapitala baduzue. Urtero ateratzen dira ikasle ohiak izango diren ikasleak. Nola erakartzen dituzue?

Aipatu antolaketa lanetan parte hartzen dugunok hogeit bat lagun garelako. Ez dago inor soberan eta pozik hartzen dugu gugana elkarlanean aritzeko prest datorren edonor, betiere, modu onean, Zumarragaren alde zerbait egiteko helburuarekin eta gure elkartearen izena sustatzeko asmoz badator.

Ikastetxetik ateratzen diren ikasleak, nire ustez, ez daukate La Salleko parte izatearen sentimendu hori eta eskolarekiko fideltasunik. Agian asoziazionismorako aukerak gure garaian zirenak baino askoz ere zabalagoak direlako eta beharbada egungo eskaintza gurea baino erakargarriagoa suertatzen zaielako.

Gaur egun, boluntariotzaren gaia ia desagertuta dago, baina guk lanean jarraituko dugu hain urria den balore hori helarazteak harro sentiarazten gaituelako.

-Nolakoa da eskolarekiko harremana? Adeitsua.

-Harro La Salle familiaren parte izateaz? Bai.

Misioa

Anai Felix Ezama

1.- AURKEZPEN LABURRA

Hau da Gure Txokoa atalerako aurtengo ikasturtean egin dudana hirugarren ekarpena. Lehenengo ekarpenean ANAIA – SALLETTARRA hitza nabarmentzen saiatu nintzen. Bigarren artikuluan humusaren garrantzia azpimarratu nuen, salletarra errotzen den oinarria: ELKARTEA – HARREMANA. Eta, lehen ziklo honi itxiera emateko, MISIOA.

2.- MISIO HITZAREN BI ADIERA

a) Misioa BIDALKETA bezala (latinetik missio): bidalketa, enkargua, deia, bokazioa. Nork bidaltzen nau? La Sallerentzat argi zegoen Jaunak bidaltzen zuela ume eta gazte zaurgarriei erantzuna emateko (ekonomia, maitasuna, familia,...).

b) Misioa ZEREGIN BEZALA: “zertararako” bidali gaituzte. Zentzu horretan Misioa zeregin bat da, baina zeregin hutsaz harantzago doan esanahi sakonagoa daukana.

3.- MISIOA – BIDALKETA

Hezitzaileok norbaitek bidali gaitu:

- *Salletar Elkarreak bidali gaitu*, behin Eskolak bere baitan hartu gaituela misio berezi bat gauzatzeko. Zentzu honetan noizean behin egokitzen diren eta Izaera Propioa eta Plan Estrategikoan adierazita dauden Salletar Eskolaren xede eta helburuei leialak izaten eskatzen digute.
- *Gurasoek bidali gaituzte*, funtzio hezitzailearen zati bat gure esku uzten dutenak.
- *Ikasleek bidali gaituzte*, etorkizunean beraien bizitzari zentzua emango dioten hori aurkitzen eta garatzen lagundu diezaiegun.

Gurasoak norbaitek bidaltzen ditu (eta beraien seme-alabak bidaltzen dituzte):

- Bizi duten eta beraien seme-alabek biziko duten errealitate sozialak bidaltzen ditu. Bizitza egokitzen zaien garaien seinuak aurkitzen saiatuko dira, gizarte horretan kide eraginkor gisa txerta daitezen.
- *Erakunde sozialek, eliza erakundeek eta hezkuntza erakundeek bidaltzen dituzte*, eraldaketa soziala eragiten duten kide ekintzaileak sustatu nahi dituztenak.

Ikasleak norbaitek bidaltzen ditu:

- *Gurasoek tutoreek,... bidaltzen dituzte*, gizarte berriaren “kimu” berri bezala.
- *Eskolak berak bidaltzen ditu*, beraien asmo sakonenak ahal duen einean asebetetzen saiatzen dena.
- Salletar Erakundeak bidaltzen ditu, hainbat familiaren seme-alabak onartzean hartu duen konpromezua mantentzeko bermearen ardura hartzen duena.

4.- MISIOA – ZENTZUA – ZEREGINA.

Hezkuntza Elkarteko kide bakoitza bere eremu propioan ondorengoa izaten saiatuko da:

- Kide ekintzailea kultura, erlijio, etnia, politika eta belaunaldi anitzeko mundu plural batean.
 - Elkarteko gainontzeko kideen “bihotzen motorra” (Salleko Juan Bautistaren esaldi ederraren arabera), Salletar Eskolan duen misioarekiko leiala den einean.
 - Entrega oparoen espazioa, ordutegi eta tokiko mugetatik harantzago dagoena.
 - Bizitzaren zentzua etengabe bilatzen ari den pertsona.
 - Ikertzaile trebea, salletar pasiotik abiatuta zaurgarrienekin topo egitera doana.
 - Entzuteak, bideratuak eta bidaliak izateko ezinbesteko beharra duten pertsonen lagun.
 - Gure fedearen lekuko, sekularizatzen ari den eta barnekotasuna eta transzendentziara zabaltzea alde batera uzten dituen mundu batean.
- Hori guztiagatik Salletar Eskola posible da bere hezitzaileek beraien langile eta profesional aldeak bokaziodun hezitzailearen aldearekin bateratzen badituzte. Beraien barne bizitza gai izan behar da berehalakotasunetik harantzago joateko, pertsonen misterioaren aurrean liluratzeko – beraien ikasleak, seme-alabak –, beraien burua bitartekari azaltzeko eta beraien gain daramaten handitasuna eta ardura onartzeko.

5.- MISIOAN LEKUKOAK

Pobreekiko anaitasunean eta elkartasunean bere bizitza bizi duen Hezkuntza Elkartean baten testigantza Salletarren lehenengo ardura da, baita bere ekarpen berezia egitea partekatutako misiora ere. Salbatzen duen maitasun baten zeinuak izanda, elkarrekiko eta besteekiko anai-arrebak izanda, Jainkoaren Erreinuak iragartzen duen eraldaketa soziala ikusgai egiten dute.



Anai Robert Schieler

Kristau Eskoletako Anaien
Anaiburu Orokorren
bisita Arlep Barrutiari

apirilak 8-21, 2018



Robert Schieler, La Salleko Anaien Anaiburu Orokorra, apirilaren 8tik 21ra bisita pastoral egiten izan zen Espainian.

Bisitaren helburuetako bat Espainia eta Portugalen La Salle hezkuntza misioarekin duen konpromizoa ezagutzea izan zen. Anai Aidan Kilty, RELEMeko Anai Kontseilaria (Europa eta Mediterraneo), lagun izan zuen. Bere egonaldian elkartasun mezu asko utzi zituen, proiektuekin aurrera jarraitzeko animoa eman zuen eta ARLEP Barrutian egiten ari garen lanarekiko miresmena adierazi zuen. Bisitan Anai José Román Pérez, ARLEP Barrutiko Anai Ikuslaria (Espainia – Portugal), ere lagun izan zuen.

Kasu honetan, pertsonengana hurbildu nahi izan zuen, La Salleren erantzuna zuzenean ezagutzeko, ingurune honetan salletar karismatik ematen ari garena. Hurbildu zen, baita ere, Espainia eta Portugaleko salletar

elkarte-sarearen antolamendu berrira, misio partekatuen eta asoziazio prozesuaren garapenera eta abian diren kongregazio-arteko proiektu ezberdinen bilakaerara.

Egun horietan abagunea izan zuen hezkuntza proposamena eta zaurgarrienen alde La Salle egindako apustua hurbilagotik ezagutzeko. Azken hau Barrutiko sozio-hezkuntzako obretan eta ikastetxeen eta erakunde unibertsitarioen berariazko ekimenetan gauzatzen da.

Anai Robert Schieler 2014 ezker Kristau Eskoletako Anaien Anaiburu Orokorra da. Filadelfian jaioa, Estatu Batuak, betirako profesia 1979an egin zuen. Bere herrialdean jardun zen irakasle zereginetan eta ondoren hamahiru urtetan Filipinetan misioan aritu zen. Anaiburu Orokorra izan aurretik Kontseilari Orokorra izan zen Estatu Batuak eta Kanada salletar eskualderako.



ARLEP barrutiko sei sektoreak bisitatzen

Kataluniako Sektorea Anai Robertek bisitatu zuen lehenengo errealitatea izan zen. Bertan hainbat elkarte eta Fundació Comtal ezagutzeko aukera izan zuen. Horretaz gain, CRAE-ko (Centro Residencial de Acción Educativa) gazteekin momentuak partekatu zituen. Bestalde, Bartzelonako La Salle Campus-ean izan zen, non *“gizartearen errealitate berriari aurre egiteko egokitzea eta eraldatzea”* zein garrantzitsu diren azpimarratu zuen.

Bilboko Sektorea Anaiburuaren hurrengo geldialdia izan zen, non hezkuntza obrak eta elkarte desberdinak ikusteko aukera izan zuen. Bertan, bisitatuko lehenengo obretako batean gazteen rola azpimarratu zuen. Anaiburu harritu egin zen La Salle-Bilbao-ko Eskoletan bizi den mezuaren aurrean: *“Har ezazu behar*

duzun denbora zure denbora partekatzeko”; geldione bat behar dugu eta gure buruari entzun behar diogu gizarte hiper-konektatu honetan. Sektoreko Anai guztiekin elkartzeko aukera izan zuen, bereziki Irun, San Asensio eta Bujedoko SAFAS-etako Anaiekin, baita Sektoreko Obretako Zuzendariekin ere.

Madrileko Sektorean Anai Robert Schielerrek sekularren garrantzia nabarmendu zuen salletar munduan *“bizi dugun egoeraren aktore berriak direla”* esanez. Bisitatu zuen lekuetako bat Campus La Salle Madrid izan zen aurten bere 70. urteurrena dela aprobetxatuz. Robertek gailendu zuen *“salletar karisma ez dela 300 urtetan aldatu baina bai aldatu dena misioa dela, gaurkotasunera moldatuz”*.

Bidaia Andaluziako Sektorean jarritu zuen, non La Salle Etxearen sozio-hezkuntzako obra eta Anai marista eta salletarren elkarte mistoa bisitatu zituen. Animazio Taldearekin eta zuzendariekin ere izan zen eta Manos Abiertas al Norte sozio-hezkuntzako obren ordezkariak ezagutu zituen.

Valencia-Palma Sektorea bisitatzen ari zela Anai Robertek Projecte Obert Paterna y Lliria harrera etxeei buruzko informazioa jaso zuen eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden haur eta gazteei laguntza emateko lanean

jarraitzearen garrantzia nabarmendu zuen. Beste momentu hunkigarri bat Anai Robert eta Anai Aidan-ek Elkartearikiko konpromezuaren bidea hasiera doazen gazte salletarrekin bizitakoa izan zen.

Azkenengo geldialdia Valladolid-eko Sektorea izan zen. Bertan Anaiak eta sekularrak bizi diren Girón eta Herrera Elkartek ezagutu zituen. La Salle Nuestra Señora de Lourdes ikastetxeak Anaiburuarekin eta Anai Kontseilariarekin ospakizun bat izan zuen, non ikasleek One La Salle bezalako abestiak abestu zituzten.



Bisitaldiko topaketa desberdinen hainbat "altxor"

- "Eskerrik asko, Anaiok, berrikuntza honen arkitektuak izateagatik, asaldurazko garaietan bizi arren zuen konpromezuari tinko eutsi diozuelako"
- "Munduko indar nagusienak – teknologia, globalizazioa eta aldaketa klimatikoa – guztiak batera azkartzen ari dira. Ondorioz, gure gizarteko aspektu asko, lantokiak eta geopolitika eraldatzen ari dira eta berrirudikatu behar ditugu".
- "Ulermenaz eta tokiko praktiketaz harantzago joateko deitu gaituzte, baita elkarrengandik ikasteko ere. Errukiak xedeak, nahiak eta kezkek partekatzerantz bultzatzen gaitu".
- "Ikasleek isiltasuna eta bakardadea balora dezaten lortu behar dugu".
- "Garrantzitsuena gertatzen ari diren aldaketei nola erantzuten diegun da".
- "La Sallen gazteei epaitzen ez dituen giro batean hezteko aukera ematen dien espazio bat eskeintzen diegu".
- "Gure institutuaren jaiotza ez zen pertsona bakar batek bakarrik lanean arituta egindako esfortzuaren ondorioa izan. La Salleko San Juan Bautistak beste motatako pertsonekin egindako lana da: hasiera batean sekularrak ziren lehenengo Anaiak; ongileak; emakumeak; elizgizonak eta agintari zibilak".

- "La Salleko San Juan Bautistaren garaian gure Institutuak izandako loratzea berriro bizitzeko aukera paregaberekin bedeinkatu gaituzte".
 - "Gaur egun Ebanjelioan inspiratutako istorio honen egiletza Jainkoaren Erreinua hezkuntzan ezagutzeko misioarekin konpromezua daukaten Salletar guztiokin partekatzen da".
 - "La Salleko San Juan Bautistak eta bere kideek hasitako mugimendu hau 79 herrialdeetan hazten dihardu. Egutero milioi bat haur eta gazte 90.000 laguntzaile eta 3.600 Anairekin elkartzen dira mundu hau leku hobe bilakatzeko, pobreentzat bereziki".
 - "Nire kezketako bat Salletar Familia eta Salletar Elkartearen sustapenean Anaientzat diseinatutako egiturak erabiltzen ari izan gara da. Laguntzaileok, zuen bokazio propioarentzat eta bizitzarentzat aproposagoak diren dinamikak eta egiturak kontuan hartu al dituzue?"
 - "Proiektu hobereenak beraien ametsak praktikan jartzen ausartzen diren jende gaztetik sortzen dira". "Amets egiten ausartu zaitezte".
 - "Ekintza txiki hauek egiten ditugun elkarte txikiak gara mundua benetan aldatzen dutenak".
- Milesker, Anai Robert, zure gertutasuna eta ARLEP Barrutian daukazun presentziagatik**

Irakasleen txokoa

Hona hemen gure irakasleek gure ikasle eta gurasoei ikasgaiz ikasgai gomendatzen dieten materiala.



Haur Hezkuntza

Zer diote zure seme-alabaren marrazkiek?



[Izenburuen ganean klikatu edukietara joateko](#)

Haurrengan dislexia ulertzea: Dislexiaren tratamenduak eta seinaleak



Lehen Hezkuntza

TUTORETZA
Marea Urdina



[Izenburuen ganean klikatu edukietara joateko](#)


Haurrei etiketa jartzea oso erraza da



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

[Izenburuen ganean klikatu edukietara joateko](#)

BIO-GEO
Mailako Biologiako edukien laburpena




Irakasleen txokoa

INGELES
Practice anB skill Bou @ant @ith interacti?e lessons!



EUSARA
ainkoen zigorra (Alberto Ladrón)




GEOGRAFIA ETA HISTORIA
Arteko aldizkari bikainak



MATEMATIKA
Trebatu ezazu zure gaitasun matematikoa joku hauekin!



FRANTSESA
Apprenez un peu plus avec ce amusants jeux!



IT
Chromebook-erako aplikazioen sailkapena



Ikasleen txokoa

Gure ikasleen lana ez da azterketetara eta etxeko lanetara mugatzen. Ekintza pila bat burutzen dute eta oso interesgarriak diren banakako zein taldeko lan nahiz proiektuak egiten dituzte. Hona hemen adibide batzuk: gure ikasleak lanean!





HE Armiarma sarea



HE Botilak



HH 4 urte Mexiko



HH 5 urte Inkak



HH 5 urte Uraren proiektua



A maila
Alpamen berezia: Iker Jimenez Lopez
Gaia: AMONA NEGARREZ IKUSI DUZU GAUR
Doinua: Ama begira zazu

1) Amona triste dago zahartzen ari da denbora pasatzen du atzera begira.
2) Baina tokatu zait orain loteria eta alaitu zait horrekin begira.

3) Diru mordoa dauka ta ez du gastatu nahi denerako duzu ta gasta zazu lasai.
4) Amonak paga igotzea hala ere ez uste zaharrek euroak ondo jasotzen dituzte.

A maila
1. saria: Julen Lesmes Martin
Gaia: AMONA NEGARREZ IKUSI DUZU GAUR
Doinua: Petia Josepe

Arratsaldean bisitatu dut nere amona zaharra eta sukaldean eserita zegoen triste xamarra gerturatu eta ikusi diot begietatik negarra masailen muku bat emanda lrtzen zaito irrifarra.

Eguna pasatzen du lanean erratza eta fregona eta nirekin beti jolasten katxondeo eta broma haserretzen den momentuetan da ptxatxo bat mandona baina hala eta guztiz ere asko maite dut amona.

A maila
Alpamen berezia: Miren Karnele Galdona Antia
Gaia: AMONA NEGARREZ IKUSI DUZU GAUR
Doinua: Ama begira zazu

1) Tristura sentitu dut amona ikustean negarrez hasi da ta esan didanean.
2) Txakurra hil zaiola eta dauka pena lau urte zeukan eta Lagun bere izena.

3) Nik esan diot lasai amona mesedez aurkitu behar dugu beste bat bere orde.
4) Eta aurkitu artean txakur dotorea denbora baterako zuk hartu nerea.

A maila
Alpamen berezia: Oier Agirrezabal Pavon
Gaia: AMONA NEGARREZ IKUSI DUZU GAUR
Doinua: Unibertsoa

Amonaren etxera haldu naiz arratsaldeko bostetan negarrez aurkitu dut amona ez dakit zer duen benetan oheratu naiz preokupatuta goizeko ordubietan gehiegi kostatu zait jartzea bere sentikizunetan.

Ohetik jeikitzean joan naiz nire amona ikustera irribarre bat egin dit eta jun naiz zer dun galdetzer a - galdut dut Asensio aitonaaren diamantezko pultsera! - ez da izango sofa azpian dagoen buruz behera?

Eskolarteko Bertso-paper lehiaketako sarituak



Bertso _aialdia


Click egin izenburuan



LH 6. mailako ikasleek Arotz Enean egindako bi tailerretako lanak




Ander Acosta



Marcos Rodriguez



on GHmez



Mikel PeGa

DBH Plastika

LENGUA - DBH

Click egin ondorengo lanetan




Naroa Sil?estre

Izaro Garc a

Unai Arratibel

Iker Aguirre




Nekane Ibarzabal


Primer viaje de Col n

Leo Miranda


Primer viaje de Col n



DBH2 Beirateak



DBH1 In ogra ak



DBH2 Bideoklipak



Hezkuntza Fisikoa DBH4

Click egin izenburuan

ATCORE

Pasa den apirilaren 18an DBH 3. mailako ikasleek ATCOREtik (Asociación de Trasplantados de Corazón) bisitaldi bat jaso zuten. Mailako SEIN talde bateko kideek, medikuntzan lortzen diren aurrerapenak ikertzen ari zirela, trasplanteen inguruan sakontzea erabaki zuten. Horren inguruko proiektu bat prestatu eta aurkeztu zuten eta, hori osatzeko, haien ikerketan suertatu zitzaaien aukera aprobetxatzea erabaki zuten: trasplanteen informazioa eskolara ekarri egoera horretan zuzenki inplikaturik dagoen pertsona baten eskutik.

Horrela, Joxean Arteaga, basauritarra, etorri zitzaigun. Berak trasplanteen inguruko informazio pila bat eman zigun (zein organo transplantatu daitekeen eta zein ez, zer zailtasunengatik komeni den trasplante bat, zer arazo sortu daitekeen gero, nola aldatzen den transplantatu baten bizitza, zer egin dezakegun organo emaile izateko, nola dagoen organo trasplanteen kontua mundu mailan eta Espainako leku desberdinetan,...). Baina garrantzitsuenak ez zen kontatu zigunaren edukia, baizik eta bere esperientzia pertsonaletik kontatzen zuela, benetako sentikortasuna



adieraziz. Horrekin lortu zuen ikasle eta irakasleak beren egotea gurekin egon zen bi orduetan.

Pertsona handia Joxean, tamainaz eta bihotzez. Eta ez jasotako bihotzarengatik, hori lehenagotik zetorkion. Berak esaten zigun bezala, beste bihotz bat jasotzeko ez du pertsona eta izaera aldatzen, baina bai aldatzen dela, onerako, bere bizi kalitatea. Adibide garbiarekin esaten zigun: "beste bihotz bat jaso izanak ez du ezer aldatu maite ditudan pertsonak maitatzeko modua, ezta nire Athletic zaletasuna ere".

SEIN 3



SEIN 1

DBH 4. mailako ikasleak merkataritza txikiaren babesle sutsu bilakatu ziren Urretxu eta Zumarragako Bi-Tartean Merkatarien Elkartarekin elkarlanean. SEIN programaren baitan Ander Viedma, Nagore Díaz, Nalaya Sedano, Iñaki Mendiluce y Álex Canterok merkataritza txikiaren inguruko azterlana egin zuten ikasturte honetan zehar, komertzioak dituen gabezia eta indarguneak ikusi eta indartzeko estrategia posibleak landuz. Lana borobiltzeko ginkana bat antolatu zuten eta LH 3, 4 eta 5eko ikasleek hartu zuten parte jokoetan. Ekimenaren helburua ikasleek Urretxuko eta Zumarragako saltokiak ezagutzea zen, baita salgai dituzten produktuak ere. Eta nola ez, tokian tokiko merkataritzak duen garrantziaz jabetu nahi zituzten ikasleak eta kontsumitzaileak oro har.



Dendetan proba ezberdinak gainditu behar zituzten partaideek pista berriak lortu ahal izateko. Probak dendetako artikuluekin lotuta zeuden neska-mutilek denda eta produktua, biak, ezagutzeko.

DBHko ikasleek aurrez LHkoei hitzaldi bat eman zieten FrEE MARK izenburupean lantzen ari ziren proiektuaren harira, bide batez, ginkanaren inguruko xehetasunak azalduz. Azkenik, izandako arrakasta ikusita, Beasainen izan ziren proiektua aurkeztu eta beraien stand-era gerturatzen zen edonori azalpenak eman zitkieten.

SEIN 4



Anai-arrebak eskolan

La Salle Legazpi familia askok osatzen dugun familia handi bat gara. Atal berri honetan gure egunerokoa osatzen duten eta gure lanari zentzua ematen dioten familia bereko anai-arrebak ezagutu nahi ditugu. Hona hemen gure eskolari buruz kontatu digutena:

1. Hitz batekin deñitu ezazu eskola.
2. Zein aldaketa nabaritu dituzu aurten?
3. Zein aholku emango zenioke zure anaiari / nebari / ahizpari / arrebari?



Ane PeGa
2 urte

- 1.- Jostailuak
- 2.- Abesten eta jolasten dugu
- 3.- Muxu bat emaidazu

Ander PeGa
HH 5 urte

- 1.- Leku polit bat
- 2.- Gela handiagoa da eta asko idazten dugu
- 3.- Ondo pasa ezazu



Marfa OmaGas
HH 4 urte

- 1.- Lagunak
- 2.- Gauza asko margotzen ditugu eta asko ikasten dugu
- 3.- Ez egin bihurrikeriarik

Marta OmaGas
HH 5 urte

- 1.- Lagunak
- 2.- Lan koadernoak dauzkagu, maketak egiten ditugu eta asko margotzen dugu
- 3.- Andereñori kasu egin



,on Al?is
LH 1

- 1.- Ikastea
- 2.- Andereño berriak dauzkagu
- 3.- Txintxo ibili

Mikel Al?is
LH 4

- 1.- Lagunak
- 2.- Gauza gehiago ikasten ditugu (landareak, adibidez)
- 3.- Ez egin korrika eskaileretan eta etxeke lanak egin



Aratz Arribas
LH 2

- 1.- Gauza berriak ikasteko tokia
- 2.- Lan eta lagun gehiago dauzkat
- 3.- Ez ahaztu materiala

) aiza Arribas
LH 6

- 1.- Ezagutzeko gogoia
- 2.- Gehiago ikasten dugu eta ordenagailuak erabiltzen ditugu
- 3.- Etxeko lanak ondo egin



Pablo Guereta
DBH 1

- 1.- Ikasketak
- 2.- Klaseek gehiago irauten dute eta zailagoa da
- 3.- Ondo bukatu ezazu ikasturtea zure azkenenengo urte honetan

Dlex Guereta
DBH 4

- 1.- Formakuntza
- 2.- Gehiago ikasi behar da
- 3.- Pilak jarri eta ikasketak egunean eraman



Oier PErez
DBH 1

- 1.- Azterketak
- 2.- Ordu eta ikasgai gehiago daude
- 3.- Gehiago ikasi behar duzu

,on PErez
DBH 4

- 1.- Etorkizuna
- 2.- Seriotasun gehiago behar da
- 3.- Gauzak serio hartu, ez utzi ezer azkenengo momenturako, irakasleei kasu egin

Familien Txokoa

Familiak eskola elkartearen beste zati garrantzitsu bat dira. Hona hemen beraiei eskainitako tarteak.

Gogoeta - Orientazioa

ZUK ZEUK ERABAKI

Beldurra ematen digu galtzeak, baina ezin dugu ahaztu bide bat aukeratzen dugunean bide horrek norabait eramaten gaituela eta han zerbait gure zain dagoela. Eta osorik itxaroten digu, ez zatituta edo bananduta. Aukeratzea, hautatzea, ez da gauza erraza, baina aukeratzen ez badugu, beste batzuek eurek nahi duten lekutik eraman zaitzakete, zure ordezkariak aukeratzen dute. Zeuk erabakitzen ez baduzu (zure erabakiaren ondorioak gain hartuz), gorabeheren baitan geratzen zara. Halakoetan, jakina, beste batzuei bota diezaiekezu agertzen zaizunaren errua, baina ez duzu ezagutuko zeure askatasuna erabiltzearen esperientzia sakona. Zein irizpide erabiltzen duzu zure bizitzan erabakiak hartzeko? Oso atsegina duzuna aukeratzen duzu eta hori lortzearen gogor lan egiten duzu ala bide erraza aukeratzen duzu?

LAGUNTZEN ETA ORIENTATZEN UTZI

Nor ez da ibili, noizbait, galdu samar bidean? Bizitzako bidaia hasten denean, oraindik ez dugu ondo jakiten zer ekipaje hartu, helmuga ziurgabetasunez betea agertzen da eta ibilbide-orri alternatibo asko jartzen zaizkigu. Baina gauza ziurra da bide hori beste batzuekin egin nahi dugula eta lagunak dauzkagun gauzarik garrantzitsuenak direla.

Gure identitatea bilatzea eta gure sentimenduen munduarekin konektatzea bidaia horren parte garrantzitsua da. Hazkunde honek kanporako mugimendua

du, baita barrurako mugimendua ere. Azken honek edertasunez, askatasunez eta zentzuz betetzen du gainerako guztia: "nire barruari begiratu eta ulertu ...". Barrura begiratu gabe, asko galduko genuke, geugandik eta bestegeugandik.

Gure GPS-ak ezinbesteko baldintza bi adierazten dizkigu gure barnekotasunaren espazio horretan sartu nahi badugu: lagun bat aurkitu, biderako erakusleak eman diezazkigukeen gidari aditu gisa, sentitzen duguna esan eta adierazteko ... eta gelditu, gure buruarekin konektatzeko.

BIZITZAN GARRANTZITSUAK DIREN BALIOAK

Errealitatea nagusi. Normala da. Guk gurea: gure familia, gure etxea, gure lurra, ... Nire ikuspuntu partikularra garrantzitsua da, berez mugatua eta partziala izan arren. Kontua da bizitza hurbilekoan eta konkretuan garatzen dela, baina aldi berean balioak eta aukerak denonak direla. Neure errealitatea gainditzea eta justizia eta etika globalen ikuspegiak haragitzea oso ariketa konplexua da, baina oso beharrezkoa.

Horregatik, ikaratu egiten naute uzkurdua moralak, etsikeriak, behera begiratzeak, isiltasun konplizeak ... Behera begiratzea, urrutikoa kontuan ez hartzea edo desberdin denarekiko

sentikortasuna galtzea eragiten digun orok gure munduaren osotasunari mehatxu egiten dio, gure balioak nolabait zalantzan jartzen ditu. Eta ez dut hau Fedearen ikuspuntutik bakarrik esaten, denok lotzen gaituen gizatasunetik ere esaten baitut.

Garai hauek, ez dira "Ni on ... eta hor konpon, Mari Anton" esatekoak, denok elkarrekin gizarte eta herri egiten gaituena berreraikitzeak baizik. Ugariak dira krisiak, hemengoak eta hangoak, asko dira beharrak eta eskeak. Ez gaitzatela nahasi. Balioak eta printzipioak konplexuaren aurrean probatzen dira. Garai latzetan erakusten da garrantzitsua. Zailtasunetan ikusten da, onerako zein txarrerako, gure gizartearen benetakoa.

Gaur hurbilekoekiko eta urrunekoekiko solidaritatearen eta justiziaren garaia da. Gaur gureaz haraindi joateko eta lankidetza aberatsen oparoalditako luxua ez dela erakusteko garaia da. Printzipio etiko apurtezina da, zenbat eta gutxiago eduki, orduan eta garrantzitsuagoa.

BIZITZARAKO EREDU IZATEAREN GARRANTZIA

Gizakia ... zein iluna izan daitekeen eta zenbat argi eduki dezakeen!

Mundu honetan gauza txar asko dago, baina nik gurago dut gizakia zein miresgarria izan daitekeen pentsatu. Pertsona bikaina bilakatzea lan zaila da, ahalegin handia behar duena, irmotasuna eta diziiplina eskatzen dituena. Hala ere, lor daiteke.

Gerta daiteke, gainera, pertsona batzuk kanpotik bikainak izatea, baina zerbait ezkutatzea eta familiatean edo lagunartean hain bikainak ez izatea. Nik beti esan dut inor ez dela perfektua, baina BADAKit batzuk ia perfektuak direla.

Beharrezko da eredu bat edukitzea, nori begiratu edukitzea. Zuek zuena aurkitu behar duzue. Behin aurkitu ondoren, azter ezazue: biografia irakurri, bideoak ikusi, zer eta nola egin duen jakin ... Zuen eredu hori ezagutzeko aukera baduzue, hitz egin, egon, dibertitu ... beronekin.

Beharbada, egituraren bat izango da bilatzen duzuen hori emango dizuen: Gobernu Kanpoko erakunde bat, sindikatu bat, auzo-elkarte bat, alderdi politiko bat ... Edo zuen fedea edo erlijioa. Denak dira baliozkoak. Kasu hauetan, gainera, alde, elkarte edo eliza baten parte izateak bakarrik ez sentitzen lagunduko dizue.

Agian, zenbait eredu izan ditzakezu: norbait, oso espiritual delako; beste bat, ondo sentitzen eta zintzo jokatzeko laguntzen dizulako ... Eredu izan ditzakezu: zure aita edo ama, zure irakaslea, zure entrenatzailea, zure parrokoa...

Ahalegindu zure inguruko pertsonak ondo aukeratzen irakurtzen dituzun liburuak, ikusten dituzun pelikulak ... egokiro hautatzen dituzun bezala. Aukeratu bakarrik onerako lagunduko dizutenak eta pertsona hobe bilakatuko zaituztenak.



La magia del silencio

Anai Mikel Arbizu

Ez dut sekula ikusi erakuslehioetan hainbeste sendabide liburu, ongizatea eta zoriontasuna nola lortu azaltzen duten hainbeste liburu. Egunkari eta kaleko hormetan ikastaroen, hitzaldien, gorputza eta burua erlaxatzeko teknikak lantzeko saioen iragarkiak daude. Modan dago.

Dirudienez auto-laguntzako errezetak behar ditugu. Hitzek, zaratek, emozioek, ezustekoek, presek erasotzen gaituzte... Nola jasan deza-kegu hainbeste? Batzuk zalapartatik ihes egiten dute. H. David Thoreau eleberrigilea "Walden" paradisuari izan zen bi urtez eta naturan bizi zuen esperientzia zora-garriari buruz idatzi zuen. Gaur egungo turismo agentziek ez daukate eskeintza hori beraiei zerbitzuen artean; baina guk ez daukagu ez denborarik, ez dirurik.

Hala ere, telebista ikusten ari garela iratiaren bolu-mena topera edukitzea gustatzen zaigu; partida (bizilagun guztiek entzuteko bezala) telefonoz hitz egiten ari garela. Ez badago iskanbilarik, bizitasun akustikorik, inguruan soinu sentsaziorik, betetzen eta indarrez hartzen gaituen ezer... bizirik ez gaudela dirudi. "Menpekotasuna" daukagu.

Isiltasunak ikaratzen gaitu. Ume eta nerabeak MP3arekin, jendea garrasika kalean, elkarri oihuka agurtzen diogu (oso gurea den zerbaite), dezibelioek adiskidetasuna neur-tuko balute bezala.

Ez daukagu ihes egin behar. Ihes egitea koldarkeria da eta ez dauka emaitza onik; "behartutako" isiltasuna soilik. Algara zapaltzea, ezkutatzea, lurperatzea eta sumendi baten gainean eseritzea bezala: abisurik eman gabe eztanda egin dezake. Arazoarentzat konponbide zaila. Hala ere, isiltasun "sendaketa" oso egokia izango litzateke.

Giza mingainak hamazazpi muskulu dauzkala diote. Malabarismoak egin ditzake. Inork ezin du kontrolatu! Oso erabilgarria den organu bat da baina batzutan (edo sarritan) bere funtzioetatik harantzago doa. Eztabaida baten aurrean "zenbat eta gutxiago hitz egin, arazoa errazago konpondu daiteke" (bikain, Seneca).



Sortzaileak, jakintsua ere, mingainari harresia jarri zion: ezpainen eta hortzen atzean gordetzen da. Honela, pertsonak pentsa dezake hitz egiten hasi baino lehen. "Esaten ez diren hitzak isiltasunaren loreak dira", dio japoniar esaerak.

Bizitzan lehenengo ibiltzen eta hitz egiten ikasten dugu. Pixkanaka lasai eser-tzen ikasten dugu, pentsatzen, behatzen... eta denborarekin (denbora askorekin) baketsu begiratzeko, entzuten eta ahoa itxita edukitzea. Bide luzea. "Hots baxua-rekin hitz egin, poliki; eta ez esan gauza larregirik", zioen John Wayne-k, western-etako behizainak. Tiro ona, cowboy.

Baina kanpoko zaratarekin ez da auzia konpontzen. Bakoitzak bere barnean maizter bat daukagu: beti hizketan dagoen "barneko ahots" txiki bat. Gure Kilker Hiztuna, ametsetan ere isiltzen ez dena. Isilaraztea alferrikakoa izango litzateke. Hobe despistatzea edo kasurik ez egitea. Ea ba... gehiago zulatu dezagun!

Barru-barrutik sortzen den zerbaite bilatu beharko dugu; gure izatearen barnetik. Arrakastaren sekretua barrutik kanpora doala dirudi; horrela energia, bizitza propioa izango du. "Berririo entzuten" ikastean datza. Isiltasuna entzutea! Lasaitasuna dastatzea eta gozatzea. Lasaitasunaz disfrutatzea.

"Benetako" isiltasunak bakarrik erakutsiko digu bizitzeko, funtsezkoena aurkitzen, gizakiaren izkutuko altxor-rrak deskubritzen, bizikidetzako egonkorreko bideak. Kankyo Tannier monja budistak esan zuen jendea Bartze-lonako Plaza Cataluñan isiltasunean meditatzeke elkar-tuko balitz, gaur egungo tentsio politikoa konpontzeko urrats bat izango litzateke. Jarrai dezagun saiatzen.

Baretasun, lasaitasun, oreka pertsonala transmititu egi-ten dira; partekatzen dira, usain goxoa dute. Ez dezagun ahaztu: izurrite osasungarria dira.

Gutxi hitz egin; telegramen antzera. Funtsezko gauze-tan pentsatu; beste guztia zaborra da. Horrela energia aurrezten dugu. Disfrutatu, sentitu, dastatu; barneko mezua entzun.

Gehiago nahi baduzu...

K. Tannier-en "La magia del silencio"

Mi hermano persigue dinosaurios

Anai Mikel Arbizu

Betidanik pentsatu izan dut arazo larri bat dela; zintzoa izanik, oraindik horrela dela pentsatzen jarraitzen dut. Irakasle lanetan pasa ditudan urteetan bikote asko ikusi ditut kromosoma extra horrekin jaio diren seme-alabak izan dituztenak. Bai, zuzen zaude, Down izena jasotzen duten ume horiei buruz ari naiz.

Bikiak eduki zituen familia bat gogoratzen dut; biek zekarten sindrome hau. Ez dakizu zer esan, zer egin, zer pentsatu, nola jokatu... Israelen IHP famatu hari buruzko ikastaro bat egiten nengoela, gure Eskoletan ahaztua dagoena, pertsona hauei aurpegiko kirurgia egiten zieten ikusi nuen. Beraiei itxura estetikoa hobetzeko edo gure gutxiespena murrizteko ote?

Zazpi urteko Giacomo Mazzariol-i eta bere bi arrebei, beraiei amak, laugarren umeaz haurdun zegoela, zera esan zien: "Anaia berri bat edukiko duzue. Ezuste bat da. Berezia izango da". "Zenbaterainoko berezia?", galdetu zuten. "Ikusiko duzue".

Idazleak, kasu honetan, gai honi buruz ez du liburu asko irakurri edo ikertu behar izan. Bere etxean bizi izan du guztia. Bizipenek kontakizun honetako orrialdeak zeharkatzen dituzte, bitxikeriz, barneratzen dituzun hausnarketez beteak, umore gorabeheraz, ezustez, ikasketa eta pazientzia askoz beteak.

2017an, hau da, pasa den urtean, argi eta garbi kontatzera ausartu zen. Bere iritziz, bere gaur egungo egoera ez luke inolaz ere aldatuko. Giovanni, hori da bere Down anaiaren izena, bizitzan gertatu zaion hoberena da. Errealismo gehiago ezin da eleberrian sartu, "fikziorik" gabe.

Gutiz interesgarria, erakusgarria, bizia, hunkigarria... eta nire barnean gordetzen ditudan izenondo gehiago. Ez dakizu negar, barre edo garrasi egin beharko zenukeen orrialdeak pasatzen zoazen elean. Baliteke, hemendik aurrera, horrelako



egoerak beste begi batzuekin ikusten hastea. Hainbeste gauza dauzkate oraindik ikasteko.

Pasa den urtearen amaieran Italian argitaratu eta salmenta ikaragarriak eduki ondoren, gaztelaratu berri dute. YouTube bi protagonistei buruzko informazio eta bideo gehiago daude.

Zorionez, Zumarragako Kultur Etxean maileguz hartu nuen (ez dago edonon eskuragai!). Atzo, liburua bueltatu nuenean, arduradunarekin hitz egin nuen eta, nerabeen sailean kokatu beharrean, helduen sailean kokatzeko iradokitu nion. "Zalantzan gaude", erantzun zidan adeitasunez.

Nik ere ez dakit ziurtasun osoz mundu honetan nortzuk diren "desberdinak" eta zein den benetan gure lekua.

Giacomo Mazzariol-en "Mi hermano persigue dinosaurios"

Perspektiba kontua

Elena Martínez Arana

Gizakia bikaina eta konplexua da aldi berean. Ez dago zalantzarik. Egia esan izaki bikainak gara, ñabardurez, sentimenduz beteak, bakoitza gure esentzia, pentsatzeko, jokatzeko, sentitzeko, bizitzeko era propioarekin. Hala ere, konplexutasun horren jatorria zein den zalantzan jartzen dut. Zerk eragiten digu horrelakoak izatea? Besteekin konpara gaitzatenaren beldurak? Gure egoa asebetetzeko beharrak? Edo gure inguruan dauden pertsonen gudan dauzkaten itxaropenak asebetetzeko nahiak? Gizarte indibidualista honetan, non arrakasta izatea eta besteengan gailentzea garrantzizkoena den, izaki bikainak eta konplexuak, desberdinak, bakarrak izatearen arrazoia hori dela esan genezake. Etengabeko bilakaeran murgilduta

gaude atzean ez geratzeko, gu baino hobea den norbaitek edo zerbaitek gu ez baztertzeko. Beti dago gu baino hobea den norbait. Ez dezagun pentsa ordezkaezinak garenik. Nahi eta nahi ez, ordezkagarriak gara. Haatik, norbanakoaren izaera propioa kanpoko eragileek ez lukete baldintzatu behar; urteek eta abentura baino odisea den bizitzak ematen digun esperientziaren segurtasunak baldintzatu beharko lukete. Esperientzia horri esker gauzak era intentsu, pertsonal eta garbiago batean begiratzen, kontenplatzen eta gozatzen ditugu. Esperientzia horrek gure perspektiba definitzen du.

Perspektibaz ari naizenean ez naiz etorkizunari nola aurre egiten diogun, orainean nola nabigatzen dugun edo iraganean egin ditugun ekintzen ondorioen menpe nola bizirauten dugunari buruz ari; gure ingurua kontenplatze erari buruz ari naiz, alde positiboak eta negatiboak ulertu eta barneratzeko eta horrela gure izatea bideratzeko, izaki bakar, bikain, konplexu eta zorionsua izateko helburuarekin. Haur batek xalotasunarekin begiratzen dio munduari, edozeren aurrean liluratzeko perspektibarekin. Nerabeak bere ingurua zalantzan jartzen du ikuspuntu kritikoarekin, matxinatzeko gogoarekin zenbait kasutan, bere inguruan dagoen guztia berriro aztertu baino guztiz aldatu behar dela biziki pentsatuz. Helduaroan bizitza ikusteko era finkatu egiten da, ez gara larregi konplikatzeko; zergatik aldatu orain gure izaera, pentsatzeko, bizitzeko era? Eta zahartzaroan begirada hori lasaitu eta zentzuzkoa bilakatzen da, gure inguruan daudenez arduratzen gara eta gidatzen ditugu, bizi izan ditugun mugez jakitun garen bitartean, baina urrutitik aurrera egin dezaten animatzeari utzi gabe.



Horra hor perspektibaren ahalmena: haurra

ikasteaz arduratzen da; nerabea, guztia zalantzan jartzeaz; heldua, hausnarketa egiteaz; eta agurea, gidatzeaz. Lau perspektiba desberdin, bizitzeko, eraldatzeko, izateko lau era desberdin. Hala ere, badirudi bizitzak aldiro errealitatea begiratzeko era bat inposatzen digula, kanpo eragileek gure ikuspuntua baldintzatzen dutela. Zergatik aukeratu behar dugu? Zergatik ez dugu sentitzen, asebetetzen gaituena eta libre eta zorionsu izaten laguntzen gaituen hori topatzen, gure burua etiketako, sailkatu behar gabe? Zergatik mugatu besteek gutaz espero duten horretara, egokia den horretara, logikoa den horretara, "normala" den horretara? Zergatik ezin dugu bizitza kontenplatu eta bizitza bizi betetzen gaituen, gure bizitzari zentzua ematen dion perspektiba batetik abiatuta? Zorionsua al naiz naizenarekin, naizen pertsonarekin?

Konturatu gabe beste urte bat pasa da, beste ikasturte bat, beste etapa bat. Hausnarketa egiteko garaia da, ekoiztutakoa, egindakoa baloratzeko. Arrakasta edo porrota baloratuko ditugu jasotakoaren arabera. Emaizak, buletinak, notak? Ez naiz horri buruz ari. Perspektibak distantzia hartzera behartzen gaitu, erlaxatzera eta egindakoa heldutasunarekin, lasaitasunarekin eta ardurarekin kontenplatzerara. Ispilura begiratzeko unea da, ispiluak islatzen duen irudiaren begietara begiratu eta gure buruarekin zintzoak izateko momentua. Ekoiztutakoa, egindakoa baloratu baino sortu duguna baloratu behar dugu: gure inguruan dauden pertsonengan eragin ditugun sentimenduak, gure ingurukoen bizitza ahalik eta beteen eta zorionsuena izaten lortzeko egin dugun ekarpena. Hori da bizitzari begiratzeko erabili beharko genukeen perspektiba. Bakarrak, bereziak, desberdinak egiten gaituen perspektiba. Gure perspektiba propioa.











LA SALLEtik – UGLErako bidea:

Ondorengo ikasleek La Sallen ikasi eta gero,
gaur egun UGLE eskolan ikasten ari dira.
Irakur ezazu beraien esperientzia!



LUCIA ALBISUA

Batxilergo Teknologikoa
16 urte

Duela urte bat baino ez askoz gehiago, UGLEra etorri behar ote nintzen galdetu izan balidate, ezetz esango nukeen. Betidanik izan dut argi beste ikastetxe batera joango nintzela, eta UGLEk ez zidan inoiz atentzioa bereziki eman. Baina, La Sallerekin eskola ikustera joan ginenean, uste nuenaz oso urruti zegoen zerbait ikusi nuen, eta nik nahi nuen arlo teknologikorako bereziki ona zen eskola ikusi nuen.

Orain, urte bat igaro ondoren, oso pozik nago hartutako erabakiarekin.



IMANOL PLAZAOLA

^arrozeria, Erdi maila
16 urte


DBH bukatzeaz nengoenean ez nekien zer egin behar nuen nire ikasketekin baina gauza bat argi neukan: nire bidea Erdi Maila egitea zen. Hasieran nahiz eta kotxeen mundua asko gustatu, ez nekien zer espezialitate egingo nuen. Eskola askotako ate irekietara joan nintzen eta UGLEko karrozeria zikloa ikusitakoan nire zalantzak argitu ziren, ziklo horretako helburuak asko gustatu zitzaizkidalako. Ziklo hori egitea erabaki nuen eta erabaki hori hartzen lagundu zidan gauzetako bat eskola etxetik gertu egotea izan zen.



ALE(GONZALEZ

Batxilergo Zientifikoa
17 urte

UGLEn ikastea aukeratu nuen bi arrazoi desberdinengatik. Alde batetik, eskolari buruz jasotako erreferentzia onek asko lagundu zidaten azken erabakia hartzen. Bestetik, eskola etxetik hain gertu izatea oso erakargarria zen, arratsaldetako nire jarduerekin jarraitu ahal izateko. Gaur egun, batxilergoko 2. maila ia bukatzeaz nago eta eskolan 2 urte pasa eta gero, hartu nuen erabakia finko mantentzen dut eta ez nuke aldatuko.



LE) RE MELENDEZ

Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa
17 urte

Betidanik UGLEra etorri izan nahi dut, ez zaidalako gustatzen beste eskola batera joateko egunero trena hartu beharra. Eta, egia esan, ez naiz batere damutzen duela urte bat gutxi gorabehera hartu nuen erabakiaz. Gizarte Zientzietako batxilergoa ikasten ari naiz eta oso gustura nago bai ikasgaiekin, bai nire inguruan dauden tutore zein ikasleekin.

UROLA GARAICO LANBIDE ESKOLA

www.ugleskola.org



- Batxilergoak
- Erdi Mailako Zikloak
- Goi Mailako Zikloak
- Oinarrizko Lanbide Heziketa
- Langabetuentzako Ikastaroak
- Enpresa Zerbitzuak



ZERKI
KIROL ETA AISIALDI ZERBITZUAK

**Eskola Kirola
Puzgarriak
Apar festak**

...

**Zure ikastetxearen
neurrira!**